



BESTAK BERA, SUNBILLA, LEITZA

2025

ttipi-ttapa | 883 zk. | 2025-07-31



BERAKO BESTAK 2025

Zelaieta
Okindegirako makineria

Zalain auzoa, 19 - 31780 BERA
T. 948 631 004 | info@zelaieta.com
www.zelaieta.com

Jauriena
Instalazio elektrikoak

948 631 217 | 630 136 863
Julio Caro Baroja 6, 31780 Bera
jaurenabera@gmail.com

ELEKTRIZITATE LANAK

Erreformak, etxe berriak
Lantegietarako mantentze-lanak



EGUZKI
PANELEN
INSTALAZIOAK

ONGI PASA BESTAK!

Goieko
GOI MAILAKO EKOLOGIA

Ongi
pasa
bestak!

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun 943 63 45 36

HAMAIRETAKO ERAMATEKO
JANARIA

ETXERA ERAMATEKO MENU OSOA 10,50 €tik HASITA
948 631 017



ONGI PASA BESTAK!

Sara karrika, 7 · Agerra auzoa · BERA

ANTZUZELAI
S.L.

Ongi
pasa bestak!!

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com



HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK



TTPI-TTAPA

Abuztuak 1, ortziralea

11:00etan txupinazoa San Jose zahar etxean. **19:30ean** dantza jaialdia Eztegarra pilotalekuan Gure Txokoa elkarteak antolatuta. **20:00etan** ikastolako ostatuaren irekiera. **21:30ean** euskal preso politikoen elkartasun ekitaldia txosnagunean Espidobaita elkarteak antolatuta **22:00etan** XI. Berako Gau Krosa Manttale Mendi Lasterketa Taldearen eskutik. Izen ematea: www.manttale.com helbi-dean.

Abuztuak 2, larunbata

11:15ean ahantzien oroimenez lore eskaintza Herriko Etxeko Plazan. **12:00etan** 2025eko San Esteban bes-ten hasiera adierazteko Herriko Etxetik altxaferoa botako dute eta ez-kila jotzea izanen da. Aldi berean, ttikien-dako goxokiak banatuko dituzte. **Ondotik**, erraldoiak eta buruhandiak karrikaz karrika ibiliko dira Incansables txarangak, Ezpelur gaiteroek eta Berako Gaita eskolak lagunduta. **17:00etan** Ezpelur gaiteroek San Jose

DESINERA

INSEKTU-HILTZEAK
ARRATOI-HILTZEAK
EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK
HEGAZTIEN KONTROLA

Ongi pasa bestak!

T. 948 625 597
Zalain, 42 B · BERA

INDARRI

HOTZ KOMERTZIALA ETA INDUSTRIALA
KLIMATIZAZIOA

T. 639 103 305 · Ziobi, 15 LESAKA
indharr@gmail.com

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Ongi pasa bestak!

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

KORTA ANAIAK

AROTEGI METALIKOA
CARPINTERIA METALICA

ongi pasa bestak!

Alkaiaga Ind. Elutxa 1 · 31789 LESAKA
T./F. 948 631 651
info@kortanaiak.com

SORKUNDE BENTA
IBARDIN

ONGI PASA BESTAK!

BERA · IBARDIN · 00 34 948 630 724

PIKA BEA
HARATEGIA
URDAITEGIA

Ongi pasa bestak!

T. 948 631 284
Sara karrika, 7 · Agerra auzoa · BERA

errandonea EDARIAK

ONGI PASA HERRIKO BESTAK!

Ziobi 11, Alkaiaga Industrialdea.
31789 BERA Tel. 948 630 982



TTPI-TTAPA

zahar etxean joko dute. **19:00etan** txosnen irekiera Toki Onako patioan Zker elektrotxarangak giroituta. **19:30ean** Berako txistularien karrikabuelta Illekuetatik Herriko Etxeko Plazara. **21:00etan** dantza herrikoiak Altzateko karrikan Ezpelur gaiteoren laguntzaz. **23:00etan** kontzertua Toki Onako patioan Kilimak taldearekin. **Segidan**, karrikabuelta Incansables txarangarekin Mukixu zubitik hasita.

Abuztuak 3, igandea

09:30ean herriko txistulariek Argisoinua joko dute eta Ezpelur gaiteroek herrian barna joko dute. **10:30ean** meza nagusia Esteban Donearen ohoretan Berako Abesbatzaren eta erraldoien parte hartzearekin. **Meza ondotik**, Gure Txokoa Dantza Taldeko kideek herriko txistulariekin batera, bordoi dantza eta makil dantzak dantzatuko dituzte. **Segidan**, Alazne Untxalo eta Aner Peritz *Euzkitze* ber-

tsolariek kantatuko dute. **13:00etan** Ezpelur gaiteroak Ibardinaren ariko dira jotzen. **17:00etan** Incansables txarangak San Jose zahar etxean joko du. **18:00etan** Gure Txokoa Dantza Taldeak Berako Aureskua dantzatuko du Herriko Etxeko Plazan, txistularien laguntzarekin. **Segidan**, Berako Bandaren kontzertua. **Ondotik**, Incansables txarangaren karrikabuelta Herriko Etxetik Altzatera. **21:00etan** dantza herrikoiak Altzateko karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **22:00etan** zezensuzkoa ibiliko da Altzate karrikan. **23:00etan** Bisai taldearen kontzertua Toki Onako. **Ondotik**, karrikabuelta Incansables txarangarekin Mukixu zubitik hasita.

Abuztuak 4, astelehena

09:00etan Ezpelur gaiteroak Garaitarreta auzoan ibiliko dira. **11:00etan** Incansables txarangak San Jose zahar etxean joko du. **11:00etatik 13:00eta-**

OINLUR
Reflexologia
BERA

Nerbio-sistema zentrala eta periferikoa orekatzen ditu.
Gorputzaren funtzionamendu egokiari laguntzen dio.
Immunitate sistema sendotzen du.
Odol-zirkulazioa aktibatzen du.
Antsietatea guttizen du.

Lourdes Párraga
+34 623 981 988 | @Oinlur | oinlur@yahoo.com

ERREKALDE
ostatura

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 630 259
Eztegara 23 BERA

ra Txiki-Txoko haurrentzako joko tradizionalak Frantxia Haltzuet Altzate plazan. Eguraldi txarra bada, Toki Onako patioan izanen da. Labiaga ikastolak antolatuta. **12:00etan** helduen herri danborrada Berako Bandarekin eta Incansables txarangarekin. Herriko Etxeko plazatik hasi eta Altzateko plazaraino. **16:00etan** auzo jokoak Frantxia Haltzuet Altzate plazan Txosna Batzordeak antolatuta. **18:00etan** gizonezko pilotari profesionalen arteko partidak Eztegar pilotalekuan. Sarrerak aitzinetik Purienean eta *aspepelota.eus* helbidean salgai. **19:30etik 21:00etara** gazteentzako diskobesta (LH 4-6 mailetako haurrei zuzenduta) Frantxia Haltzuet Altzate plazan. **19:30ean** kontzertua Toki Onako patioan Zaunka taldearekin. **21:00etan** dantza herrikoak Altzateko karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **21:00etatik 22:30era** DBHko gazteentzako diskobesta Frantxia Haltzuet Altzate plazan. **23:00etan** DJ Diskodelia Toki

Onako patioan. **Ondotik**, karrika-buelta Incansables txarangarekin Mukixu zubitik hasita.

Abuztuak 5, asteartea

09:00etan Irats taldek trikitilariak eta pandero jotzaileak Zia eta Dornaku auzoetan ibiliko dira; Ezpelur gaiteroak Eltzaurdia, Zalain, Alkaiaga eta Zalan Zoko auzoetan eta musika eskolako ikasleak Suspelitiki auzoan. **10:00etan** plater tiroa ehiza ibilaldia modalitatean Lizuniagan. Antolatzailerak: Berako Ehiza eta Arrantza elkarteak. **10:00etan** Berako Erronka herrian barna Frantxia Haltzuet Altzate plazan 8 eta 12 urte artekoentzat. **11:00etatik 13:00etara** puzgarriak Eztegar pilotalekuan. **12:30ean** haurren danborrada Incansables txarangarekin Illekuetatik Toki Onako patiora. **14:00etan** Kantu Bazkaria Altzateko pilotalekuan Labiaga ikastolak antolatuta. **16:00etatik 18:00etara** puzgarriak Eztegar pilotalekuan. **19:00etan** Itzal taldea- →



UTZITAKOA

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

INGURU ELEKTRIKOAK
KARABATZKO GURUA
DOMOTIKA
EOLUZO PANELEK

Ongi pasa bestak! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera.

Toki Ona
Berako Udal Kirolegia

SAS TRAKO
KIROL ZERBITZUAK

Kirol bulegoa: 948 630 215 - info@sastrakokirola.eus

GOURMET ETA BERTAKO PRODUKTUAK

URKILÄ
HARATEGIA

Kanttonberri, 12
BERA

948 630 439
666 407 210

PLATAFORMAS BIDASOA

PLATAFORMEN ALOKAIKUA

T. 639 103 305 • Ziobi, 15 LESAKA
indharr@gmail.com

mendi mendian

Ongi pasa bestak!!!
JATETXEA • DENDA • OSTATUA

IBARDIN | BERA | NAFARROA | (0034) 948 630 723
mendimendian@hotmail.com | www.mendimendian.com

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 • F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22 31780 BERA T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 • F. 948 451 304

Eltzeta, 20 31770 Lesaka T. 948 638 077

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

ie Iriarte-Etxandi *Ongi pasa bestak!*
artekaritza-aholkularitza
Occident ASEGURUAK
Kanttonberri, 1 • BERA • T.948 631 169

Goxune *Ongi pasa bestak!*
Kafetegia **Okindegia**
Sara kalea, 7 - BERA
Tel: 948 630 235
Udako ordutegia (Ekainaren 24tik irailaren 1era)
Asteartetik igandera **Astelehena**
07:30-13:30 **07:30-13:30**
17:00-21:00 Astelehen arratsaldean ixita

rekin erromeria Toki Onako patioan.
21:00etan dantza herrikoiak Altzateko karrikan Ezpelur gaiteroekin.
22:00etan zezensuzkoa Alzateko karrikan.
23:00etan Itzal taldearekin erromeria Toki Onako patioan.
Ondotik, karrikabuelta Incansables txarangarekin Mukixu zubitik hasita.

Abuztuak 6, asteazkena

09:00etan Bera Kantarikoak Eltzaurdia eta Kaule auzoetan ibiliko dira Ezpelur gaiteroak Suspelan.
12:00etan erraldoiak eta buruhandiak Alzate-tik Herriko Etxera Ezpelur gaiteroekin lagunduta. Agurra Berako erraldoiei eta buruhandiei.
12:00etan mutxikoak Toki Onako patioan Otsanda taldearekin.
17:00etan Ezpelur gaiteroekin San Jose zahar etxean joko dute.
17:30ean emakumezkoen elite mailako pilota partidak Eztegarra pilotalekuan Udako Laboral Kutxa Torneoa. Sarrera debalde.
19:30ean Los Txingones de la Rencla mariatxiak Toki Onako patioan.
21:00etan dantza herrikoiak Alzateko karrikan.
22:00etan zezensuzkoa ibiliko da Alzateko karrikan.
23:00etan kon-

tzertua Harat taldearekin Toki Onako patioan.
Ondotik, karrikabuelta Incansables txarangarekin Mukixu zubitik hasita.

***Bestabusa eta Puntu Morea zerbitzuak** abuztuaren 1ean eta 2an izanen dira eskuragarri.



UTZITAKOA

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK

GASOLIOA ETXERA
eramaten dugu

PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT ZERBITZU ANITZAK

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
IAT aurreko zerbitzua dohainik
Gasolindegia 24h irekita

609 446 693 - 679 204 872
bidasoa@neumaticosbidasoa.es
www.neumaticosbidasoa.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko

Alkaiaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125

Ongi pasa bestak!

Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872

«Argazki bat mila aldiz hobe da naturala denean»

IRAIA GILLENEA IRIARTE BESTETAKO AZALAREN EGILEA



TTIPI-TTAPA

Berezia da norberak egindako irudi bat herriko etxe denetan zabalduko dela jakitea. Eta ohore hori izanzen du Iraia Gillenea Iriarte beratarrak aurten. Berea da aurtengo bestak iragarriko dituen irudia, eta beraz, baita etxez etxe banatuko den programaren azala ere. Ez da ordea, bere lan bat agertzen den lehen aldia, 2019an bigarren postua lortuta, kontrazalean agertu baitzen.

Irudi bakarrean sanestebanetako esentzia biltzen saiatu da beratarra: «Erraldoiak, danborra jotzen dutenak, dantzariak, herritarrak besta giroan... Bestetako egun batean pasatzen dena marrazki bakarrean ikusten da», esplikatu du egileak bere lana. Digital-

ki osatu du lana, eta gaiak berak eskatzen duen bezala, «bestetako dena biltzen» saiatu da. «Garrantzia eman nahi nien Berako dantzari, giroari, haurrei, helduei... Aunitzetan besta gauekoarekin bakarrik lotzen baitugu».

Sorpresa handia

Ohituratzat du Berako bestetako azal lehiaketara lanen bat aurkeztea, baina ez zuen espero aurtengoan irabazle izatea: «Lanarekin gustura gelditu nintzen, eta sorpresa hartu nuen irabazlea nintzela erran zidatenean. Ilusio handia egiten dit Berako etxe denetan nire lanan egonen dela jakiteak».

→

Ainhua Alzuguren Mitxelena

ongi pasa bestak!

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hiltzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com



Besta gozo eta
zoriontsuak opa
dizkizuegu

Etxean egindako produktuak

948 630 786 · Altzate, 21 · BERA



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

zubiondojatetxea.com

ONGI PASA BESTAK!

Alasta karrika · BERA | T. 948 625 472



ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNeko & SUKALDEKO OSAGARRIAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602



Ongi pasa bestak txurripuki!

AUPA KULEBRILLA!

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

www.kateabike.com

Kanttonberri, 1 | BERA | Tel.: 948 631 218 | joxemi@kateabike.com

ARROPA ETA OSAGARRIAK

JOSE I. GONZALEZ ENGUITA
Pintura orokorrean
Barrualdeak eta fatxadak
T. 666 235 466

Ansonea ostatu · jatetxea
Ongi pasa bestak!
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA

E D A R I A K
Ongi pasa bestak!
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA
T. 948 63 10 27 F. 670 598 560
info@tabernaedariak.eus
www.tabernaedariak.eus

regina tolosa
FISIOTERAPEUTA
K-STRETCH® K-STRETCH
Etorri eta probatu debalde!
San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN
Ongi pasa bestak!
Centro Prim regina tolosaechepeare



IRAIA GILLENEA IRIARTE

Ilustrazioa prestatzeko astebeteko epea izan zuen Gilleneak, «nahiko berandu» enteratu baitzen lehiaketaz: «Aste oso batean egunero hartu nituen bizpahiru orduz marrazteko», azaldu du.

Argazkigintza pasio

Ilustrazioak eta kartelak egiteaz gain, argazkigintzan murgildua dago Gillenea aspaldiko urtetan. «Donostian argazkigintzari buruzko ikasketak egin nituen eta gerora praktikatzen eta sare sozialetan informazio bilatzen ikasi dut gaur egun dakidana». Gustura aritzen da argazkiak egiten eta argi dio argazki batean inportantea «transmititu nahi duzun hori jakitea» dela: «Argazki bat mila aldiz hobe da naturala denean, edo momentu bereziren bat harrapatu eta zerbait sentiarazten dizunean».

Argazki saioak egin ohi ditu eta horixe transmititzen saiatzen da, «norbera den bezalakoa erakustea,

inolako beldurrik eta lotsarik gabe». Hori lortzea, ordea, batzuetan kostatu egiten dela onartu du, aunitzek hasieran kamerari «beldurra» izaten diotelako: «Hala ere, gero, jendea lasaitu egiten da, eta saio bukaeran aipatzen dute uste baino hobe egon direla eta emaitza polita dela».

Herriko bestak ere argazkiak egiteko une aproposa izaten dira, nahiz eta bere kasuan, «bestara bakarrik» ateratzen den kamera etxean utzita. Hala ere, buruan du zein izan daitekeen bestetako argazki polit bat: «Eguneko argazki bat: dantzariak, bandako kideak jotzen, txistulariak... Bereziki gustatzen zait erraldoiak daudenean haurrek sentitzen dituzten emozioak erakustea».

Bestak dantzari gisa

Bestetarako gogotsu dago Gillenea, nahiz eta azken asteak lanpetuak izanen dituen. Gure Txokoa Dantza Taldean aritzen da dantzan, eta uztaile bereziki hilabete lanpetua izaten dute entseuei dagokionez.

Dantzari izateak bestak bertze modu batean bizitzeko aukera ematen dio, eta dantzatzen den une horiek dira bestetan maiteen dituenak, «abuztuaren 3ko goiza», bereziki. «Sentsazio aski berezia da; ez dut inon bertze horrelakorik sentitu», deskribatu du plazara ateratzean sentitzen duena. Dantza horien artean, badu bat, bereziki gustuko duena: «Bordoi dantzarekin hunkitzen naiz gehien, aunitz sufritzen dut, fisikoki gogorra delako, baina plazan zaudela barrena aunitz mugitzen zaizkizu».

Dantzari jantziarekin batzuetan, eta xuri-gorritz bertzeetan, baina bestetan karrikan ibiliko da Gillenea. Ahal duen guztia disfrutatzen, eta herritarrekin gustura.



**Hondartza, kanpin
eta lorategirako
behar duzun guztia!**

**ONGI
PASA
BESTAK!**

Zalain auzoa, z/g. - Pk. 4. - 31750 - BERA - Nafarroa
Tel.: +34 948 628 200 - FAX: +34 948 630 804
alco@alcoplas.com | www.alcoplas.com

Bera 2025

Ongi pasa bestak



IBARDIN | DANTXARINEA | BEHOBIA | LUZAIDE

Tel. +34 948 625 130 (Es.)

Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.)



www.venta-peio.com





MAITE
PELUQUERÍA MIXTA

Ongi pasa bestak!

679 493 099
948 630 483

Iturlandeta, 4-Behea
31780 Bera - Nafarroa



Ongi pasa bestak!

BRANDONEA, S.L.
FRUTAS Y VERDURAS
FRUTAS Y VERDURAS

BILTEGIA:
948 630 102
SAKELAKOA:
633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA



artatu
ONGIZATE ZENTROA

Ongi pasa bestak!

Oihana Elzaurdia Ariztia
(633 788 323) Fisioterapia
Julen Errandonea Martin
(623 11 02 58) Prestaketa fisikoa
Jon Etxegarai Irazoki
(610 003 490) Psikologia-Gestalt psikoterapia
Irantzu Piquero Rodriguez
(722 47 46 53) Vinyasa yoga - Yoga dinamikoa

Tel.: **633 788 323** | artatubera@gmail.com



xulufraia
moda-opariak

Ongi pasa bestak!

Altzate, 18 • BERA | 948 631 266 | @ f



caveo

Ongi pasa bestak!

Bidasoa, 78• BERA
Tel.: (+34) 948 62 50 20
Fax: (+34) 948 63 10 01
www.caveoautomotive.com

«Herriak ikastolari egindako aitortza da txupinazoa botatzea»

CLARA ROUGET, IXA ORDOÑEZ ETA MIKEL ALTZURI

50. ikasturtea bete du Labiaga ikastolak, mende erdia, eta urteurrena modu berezi batean borobilduko dute bestetako txupinazoa botaz. Urte osoan izan dute presente urteurrena eta hainbat ekitaldi egin dituzte: kontzertuak, ikuskizunak, sagardotegira irteera, oihanaren landaketa... Ikastolari berari eta ikasturte bereziari buruz solastatzeko hiru lagun elkartu dira mahaiaren bueltan TTPI-TTAPAREkin: Mikel Altzuri zuzendaria eta ikasle ohia, Clara Rouget gurasoa eta ikastolako lehendakaria eta Ixa Ordoñez ikastolako sortzailea eta lehendakari ohia.

Sorpresa

Aho zapore onarekin ospatu dute urteurrena ikasturte osoan, eta hobearekin borobilduko dute abuztuaren 2an. «Ez genuen txupinazoa botatzea espero», hasi du azalpena Altzurik. «Guk txupinazoa botatzea herriak proposatu izana, ikastolaren ibilbideari aitortza da», borobildu Rougetek. Urteurrenean iraganari begira, baina batez ere etorkizuna buruan aritu dira ikastolako kideak, eta txupinazoko momentuan ere horixe izanen dute helburu: «Herriko etxeko pleno aretoan ikastolako sortzaileak, lehen belaunaldiko gurasoak, gaur egungo batzordea, mantentze lanetako taldeko kideak eta

aurten ikastola utziko duten DBH 2ko ikasleak elkartuko gara, eta azken horiek botako dute txupinazoa».

Gibelera begira

50 urte bete arteko bidea luzea eta batzuetan korapilatsua izan da. Mahaiaren bueltan elkartu diren hiruen artean Ordoñez da bakarra ikastolaren ibilbidea hasieratik eza-gutzen duena: «Pio Barojaren omenaldi baten bueltan aste kultural bat antolatzeke gazte talde bat elkartu ginen, lesakarrak eta beratarrak, eta pentsatu genuen ikastola bat nahi genuela», hasi du azalpena Ordoñezek. «Francoren denbora zen, eta dena zegoen debekatua». Hala ere, poliziarik bazter eginda, mintzaldi bat egin zuten Garaikoetxea, Satrustegi eta San Fermin ikastolako zuzendariarekin, eta hortxe ernaldu zen ikastolaren lehen hazia.

Hasiera hartan gurasoek zuten «inplikazio handia» oroitu du: «Beran segidan hartu zuten parte, eta agudo zabaldu zen ikastola. Guraso aunitzek lan egin zuten ikastolan eta ikastolaren alde, eta pausoka-pausoka gauza aunitz lortu ziren. Parte hartze handia izan zen herrian», oroitu du. Ikastola hasteko, udalak herriko etxeko gela bat utzi zion eta han hasi zen Labiagaren ibilbidea. «Eliza alde genuen, eta berea zen Lagun Etxea utzi



TTIPI-TTAPA

zigun eta han auzolanean moldatu genituen gelak», segitu du azalpena. Ondotik, gaur egun Altzaten erabiltzen duten eraikina utzi zien udalak, lehen-go eskola zaharra. «Akordio polit bat egin zuen udalak eta hor agertzen zen beti euskarazko hezkuntza bermatzeko baldintzarekin uzten zutela eskola». Gerora, Altzateko eraikinaz gain, Eztagarako eraikina egin zuten 1997an, Nafarroa Oinezen bildutako diruari esker.

Mugarriak

50 urteetan hainbat mugarri bizi izan dituzte. Ikastolak antolatutako hiru Nafarroa Oinezen inportantzia nabarmendu dute: «1983koa hagitz polita izan zen, sekulako arrakasta izan zuen, eta Bera euskaldunez bete zen», oroitu du Ordoñezek. 1994koa, aldiz, «hagitz gogorra» izan zen Altzuriren eta Ordoñezen hitzetan.

2006an egin zuten azkenekoz ikastolen aldeko besta Beran, eta bildutako dirua ikastolaren egoera hobetzeko erabili zuten. Izan ere, Altzurik oroitu du, garai gogorra izan zela 1996 eta 2006 artekoa Labiagarentzat: «EGB bukatu eta DBH paratu zen martxan, eta urte aunitz ibili ginen borrokan DBHko etapa denak ikastolan emateko». Tarte horretan, «modu alegalean» ibili zirela kontatu du, eta ikastolak asumitu zuela «kostu ekonomiko dena». Azkenetako, «DBH 1 eta 2 mantentzea lotu genuen, baina 3. eta 4. mailak galdu genituen, hori kolpea izan zen», bukatu du azalpena zuzendariak.

Osasuntsu eta indarberrituta

Garai horiek pasata, gaur egun ikastolaren egoera «osasuntsua» da Rougeten hitzetan. Azken urteetan gainera, auzolana sustatzeko aha- →

Pizzio

tabako-denda 2. zbk

ongi pasa bestak!

Altzate, 26 · Tel. 948 630 788 · 31780 Bera



- Testu liburuak
- Bulego eta eskola materiala
- Joko hezigarriak
- Oparitzeko artikulak

ONGI PASA BESTAK!

Kanttonberri, 4 BERA Telefonoa eta 948 630 626 papeleriaigone@gmail.com

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE



**BESTETAN LASAI IBILTZEKO
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU
21:00-01:00
TXUPINAZO EGUNEAN EGUERDIAN ERE BAI**

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 w. www.zalain.com



ongi
pasa
bestak!!

Sara Kafetegia

UDAKO ORDUTEGIA
(Ekainaren 24tik irailaren 1era)

**Astelehenetik igandera:
07:30-13:30 | 17:00-21:00**

Hurlandeta, 6 BERA · 948 625 673

 **ugaldea**

ONGI PASA BESTAK!

**AHOLKULARITZA · FISKALA KONTABLEA
ASESORIA · FISCAL CONTABLE**

Rafa Pombar Sainz

Sara karrika, 1 31780 BERA (Nafarroa)

tel 948 63 02 01 fax 948 63 02 55 e-mail asesoria@ugaldea.com

ONGI PASA
BESTAK!



◀◀◀◀ HIRUKIDE ▶▶▶▶

Eguzki panelak ▶▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀
Aire egokitua ◀

T./F. 948 625 395
Alkaiaga ind. · Alasta, 4-6 Behea · 31770 LESAKA

**Gora Bestak!
Biba Sanestebanak!**
lagunak diren lekuan,
beti dago besta!

bortzirudi
inprimategia
kopistegia · rotulazioa · serigrafia · papertegia
948631521 · bortzirudi@gmail.com

estalehenetik ostiralera 9:30etatik 13:30etara

MENDIKO
JATETXEA

Sagardotegiko menua eta karta
EGUNERO IREKITA

Ongi pasa bestak!

Ibardin-BERA
www.mendikoibardin.com
+34 699 810 870

larreta lanak sl *Ongi pasa bestak!*

ISOLAMENDU AKUSTIKOA
PLADURRA
IGELTSU PROIEKTATUA
ISOLAMENDU TERMIKOA

Bera - Nafarroa
www.larretalanak.com · larretaigeltsua@gmail.com
Gorka Arretxea 627 225 514 · Juanen Saralegi 637 921 299

ELIZALDE
Benta | Ostaturia | Jatetxea

Besta on batzuk pasa!

948 631 024 | Ibardin | BERA



UTZITAKOA

leginetan aritu dira, eta hilabetero zerbait antolatu dute. Ikastola osasuntsu egoteaz gain, urteurrenarekin ikastolako komunitatea «biziberri-tzeko» aukera izan dute Altzuriren ustetan: «Irakasle eta guraso ohiekin berriz ere kontaktuan jartzea eta guregana hurbiltzea lortu dugu, urteurrenean parte hartu dute eta, nire irudikoz, hagitz positiboa izan da».

Urteurrena gogoan

Komunitateko kideak izan dira, gainera, urteurreneko ekitaldietan protagonista izan direnak. Hilabetero egin dute zerbait, baina, bi ekitaldi izan dira solasaldian atera direnak: ikastolaren ibilbidea kontatzen duen Jostaldia ikuskizuna, eta arbola landaketa. Jostaldiaren oroitzapen «hagitz polita» du Ordoñezek barrenean gordea: «Ikastolaren hasieran aritu zen jendea hunkituta zegoen, beraiek bizitakoa kontatzen zen ikuskizunean». Jostaldian izandako une bat oroitu du Altzurik: 1994ko Nafarroa Oinez irudikatu zenean: «Plaza dena isilik gelditu zen». Egun hartako arratsen bizitakoa «islatsu» zela nabarmentu du Ordoñezek.

Jostaldiaz harago, ikastolako oiharen landaketa da hiruek oroitu duten berteza: «Eguraldi txarra zen baina 400 lagun baino gehiago bildu ginen, ikastolako ia promozio denetako ordezkariaren bat», dio Rougetek. Otsandan landatu zuten, promozio bakoitzeko arbola bat, eta asmoa promozio berri bakoitzak bere arbola landatzea da: «Heldu den irailean Lizuniagako irteera egiten dugularik hurrengo urterako haziak bilduko ditugu. Proiektu honek segida izanen du, ez da orain bukatzen, orain hasien den zerbait da». Landaketa bera bai, baina oroitzapena urteurreneko

lehen ekitaldira joan zaio Altzurik. Ikastolatik pasatako langileei eta lehendakariei makila bana eman zieten orduan: «Hunkigarria izan zen, denek genuen inguruan omenduren bat eta polita izan zen makila nola hartu zuten ikustea».

Etorkizunera begira

50 urte beteta, heldutasun betean dago Labiaga, eta berteze hainbertze guttienez betetzeko gogoz. Ikastolaren etorkizuna «ilusioz», ikusten dute, nahiz eta badakiten hainbat erronka dituztela esku artean. Euskara da kezka iturri horietako bat: «Erabile-raren inguruan, mailaren inguruan... Kanpotik etorritako jende aunitz bada, eta kezka dugu nola eginen dugun erakusteko euskara beharrezkoa dela», dio Rougetek. Bide beretik, Ordoñezek uste du «euskara integrazioarako tresna» dela ikasi dutela ikastolan. Euskaldun hitzaz ere aritu da: «Euskara duena da euskalduna, berdin du errusiarra edo japoniarra izan». Euskararekin lotuta berteze kezka bat ere badute: hezkuntza ez formalean duen presentzia: «Interneten eta sare sozialetan gaztelaniazko edukien kontsumoa hagitz handia da, eta euskarak duen presentzia, berriz, hagitz txikia». Hala ere, argi diote erronka horiek ikastolaz harago, herri osoaren erantzuna behar dutela.

Bestetarako dena prest

Ikasturtea eta urteurrena borobilduta, bestetan azken ginda jartzea bakarrik falta da orain. Baina bestak, lanerako sasoi ere izaten dira ikastolako kideentzat. Besta Batzordearen parte dira, eta urtero hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, tartean, ikastolak paratzen duen ostaturia da, beharbada, ezagunena. Egune- →



ONGI
PASA
BESTAK

Martiko

Momentu Handien Zaporea

BOUTIQUE MARTIKO

ASTEHENETIK ORTZIRALERA 9:00etatik 17:00etara

WWW.MARTIKO.COM



ALBISU

HORTZ KLINIKA

Bidasoa, 2 - Bera

Tel. 948 631 631

Abuztuko ordutegia:
9:00tatik 00:00etaraIlekuta 11 BERA
T. 948 177 135

Ongi pasa bestak!

Osatz

Psikologia-Psikoterapia
Garbiñe Goia Irazoki

HAURRAK / NERABEAK / HELDUAK

Tel.: 619 343 755
g.g.irazoki@gmail.com

ro jende aunitz biltzen da bertan eta ostatua «auzolan erraldoiaren» emaitza da, denera 100 lagun baino gehiago aritzen baitira lanean. «Ostatua bada toki bat badakizuna zure seme-alabak hor uzten ahal dituzula, eta zuk lasai afaltzen ahal duzula». Gainera, herriari ematen dioten zerbitzutzat du Rougetek, bertzela «ez dagoelako tokirik Beran egunero afaltzeko». Ostatuaz gain, abuztuaren 5ean antolatzen duten kantu bazkaria da bestetan ekitaldirik arrakastatsuenetako bat.

Urteroko ekitaldi horiez harago, gazteen eskaintza areagotzea dute burutan azken urteetan. Horretarako, ikastolako ikasleekin parte hartze prozesu bat egin dute, beraiek bestetan zer ekitaldi nahi zuten galdetuz eta hainbat proposamenen artean diskobesta egitea izan da emaitza. Iaz egin zuten lehenengoz, eta balorazio gazi-gozoa izan zen: «Aurten berriz egingen dugu, bertze toki batean, bertze modelo batekin, eta ez hain luze...». Antolaketa ere ikasketatzat hartu dute eta ikasleekin landu dute: «Beraiek ere ikasi dezaten zer bait

egin nahi badute beraiek egin behar dutela». Hain zuzen, hori iruditzen zaie ikastolaren funtzioa, «ekarpenak egitea, ideiak aportatzea eta guk geuk martxan ezartzea».

Auzolanaren indarra

Bestetan lanean aritzeko zein bertzelako ekintzak antolatzeko, ezin bertzekoa izaten da komunitatean auzolana egitea. Ikastolan, Rougetek dioenez, normalean ez dute arazorik izaten txanda denak betetzeko, nahiz eta «asumitua dugun inplikazio maila desberdinak daudela». Ahalik eta familia gehien inplikatzeko, auzolana egiteko orduan hainbat aukera antolatzen dituzte: «Badakigu batzuk beharbada ez dutela inoiz auzolanik egingen, baina inplikazioa beti borondatearen arabera da eta ez behartua». Giro ona izaten dutela dio, eta joaten denak errepikatu nahi izaten duela familiek elkar ezagutzeko tresna ere baita auzolana.

Bestak hasteko dena prest dagoela, txupina pizteko gogotsu dira ikastolako kideak urteurrenari bukaera borobila emateko.

**IREKI**
LEIHOAKAluminio RPT / PVC | Pertsianak | Toldoak
Itxidurak | Kontraleihoak | Barandak | Berandak**ONGI PASA BESTAK!**T. 948 630962 - H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com · www.irekileihoak.com**erran.****Savera**

Elevator System Solutions

ONGI PASA BESTAK**Beratik mundura**Zalain auzoa, 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: +34 948 626 900 - Fax: +34 948 626 904
savera@saveragroup.com - www.saveragroup.comEiffel dorrea
Paris, Frantzia
330 m.ko altura**BERAKO
GIDAK
ERABILIZ
EGINA**

BIOK

EXPERIENTIAL SHOPPING



GORA BERA KO BESTAK!



Harategia



Arrandegia



Fruta eta barazkiak



Edariak

**BESTETAKO BAZKARIA
ANTOLATU BEHAR DUZU?
ZERBAIT FALTA ZAIZU DESPENTSAN?
USTEKABEKO BISITA DAUKAZU
ETXEAN?
OPARI BAT EGIN BEHAR DUZU?**

Zatoz gure supermerkatuetara, asteburuan ere zabalik daude.



IBARDIN - DANTXARINEA - LUZAIDE



ventabiok.com

MEKANIZATUAK

Ubela, S.L.

ONGI PASA BESTAK!

Zalain Ind., 9 | BERA T. 948 63 11 67

Zalain

JANARIAK

ongi pasa bestak!

Zalain Ind. 42, behe. 948 631 338 zalainjanariak@gmail.com

SUTEGI

BURNI LANAK

ERREMENTARITZA LANAK

AROTEGI METALIKOA

BURDIN HESIAK, ATEAK, BALKOIAK... EGIN ETA KONPONTZEA

ATOIAK ETA NEKAZARITZAKO MAKINAK KONPONTZEA

ATEEN AUTOMATIZAZIOA ETA KONPONKETA

613 522 770 | BERA ONGI PASA BESTAK!

autoeskola

ESKaintza bereziak!

Ikastaro teorikoa nahiz praktikoa euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 BERA T. 948 630 298 e-posta: semperautoeskola@gmail.com ongi pasa bestak!

Plaza Berria, 7 LESAKA T. 948 638 299

«Parte hartzaile gehienek errepikatu egiten dute»

IÑAKI PIKABEA MANTTALE MENDI LASTERKETA TALDEKO KDIEA



UTZITAKOA

Abuztuaren 2an hasten dira ofizialki bestak, baina bezperan bada hitzordu bat herritar aunitzek agendan gorritz markatua izaten dutena: Berako Gau Krosa. XI. edizioa izanen du aurtengo probak eta dagoeneko egutegian finkatua dago. Manttale Mendi Lasterketa Taldea arduratzen da lasterketa antolatzeaz, eta tartean izaten da Iñaki Pikabea Manttaleko kidea ere.

Iazko edizioan inoiz baino parte hartzaile gehiago izan ziren, 200 baino gehiago, eta, aurrean ere eskuargarri paratutako dortsak denak agortzea espero dute lasterketaren antolatzaileek. «Lekuak eta inguruak aunitz baldintzatzen gaitu, eta 250 parte hartzailearentzako muga para-

tu dugu, eta hori izanen da probaren neurria. Espero duguna da plaza horiek betetzea».

Lasterketak berezitasunik badu, hori da arratsean egiten dela, iluntasunean eta, beraz, parte hartzaile bakoitzak kopetako argi bat erabiltzen duela. Berezia da proba, baina ez da Manttalet asmatutako zerbait, izan ere, Ezpeletan egiten den lasterketa batean hartu zuten ideia Manttaleko kideek: «Taldek kide batek proposatuta joan ginen bertara, eta hagitz erakargarria egin zitzaigun. Gazez laster egiteak xarma zuela ikusi genuen, eta herrian gauzak antolatzea gustatzen zaigunez, besta bezperako data aukeratu, ibilbidea antolatu eta badira hamaika urte egiten dugula».

GREMIOEN KOORDINAZIOA
Sunbilla (Nafarroa)

Etxebizitza berriak · Zaharberritzeak · Erreformak · Konponketak · Teillatuak
Harri eta hormigoi lanak · Mota guztietako igeltseritza lanak

JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK

669 122 815
javieribarra@ibarraeraikuntzak.eus

Ibilbidea aukeratzeko lanak

Frantxia Haltzuet Altxate plazan hasi eta bukatzen da lasterketa eta parte hartzaileek zazpi kilometroko eta 300 metroko desnibela dituen ibilbidea osatu behar izaten dute. Ibilbidea osatzerako orduan, hainbat bide diferente izan zituzten burutan: «Lasterkari bakoitzak ditu bere gustuak eta, negatik balitz, Santa Barbara aldera joanen nintzateke, bidea pixka bat luzatuta». Hala ere, azkeneko, herrigunea hartu zuten ardatz, «argi genuelako ikusleak engantxatu» nahi genituela: «Herriguneko bidexkak eta bideak begira aritu ginen, eta lortu genuen ibilbide bat sortzea herrigunetik eta goragotik ikusi zitekeena eta, aldi berean, herritik behin baino gehiagotan pasatzen dena. Hori izan da arrakasta, bai parte hartzeko eta baita ikusteko ere».

Izan ere, aunitz dira bai herrigunean, baina baita baserri auzoetan ere, lasterketa ikustera joaten direnak. Eta ez ikustera bakarrik, baita animatzera ere: «Txistulariak ikusten ahal dituzu animatzen, txalaparta jotzen bertze batzuk, Kaxernan ura banatzeko postu bat paratzen du bizilagun batek... Sentsazioa dut bakoitzak leku bat hartu duela lasterketa girotzeko». Eta hori iruditzen zaio ederrena Pikabeari, «bestetako ekitaldi bat bihurtu dela». Horixe zuten helburu, «eta hagitz kontent gaude lortu dugulako».

Iluntasunaren eragina

Ilunpetan egiten da proba, eta noski, horrek erabat baldintzatzen ditu lasterketaren nondik norakoak, ez ikusteko bakarrik, baita egiteko ere. «Mendian behera argi murriztarekin ari zarenean, kontuz ibili behar duzu, aunitzez ere erneago, eta tontakeria ematen du, baina tentsio batean



UTZITAKOIA

ibiltzen zara, eta horrek denboran eragiten du». Baina, tentsio horren gainetik dago ilunpean lasterka egiten denean sentitzen dena Pikabearren hitzetan: «Xarma berezia du, gu hasieratik lotu gintuen eta parte hartzen duten gehienek errepikatu egiten dute». Bertze kontu bat ere badu iluntasunak: lotsagatik eta, egunez animatuko ez liratekeenak ere animatzen direla laster egitera.

Proba gaztetua

Lasterketa herrikoia da gau krosa eta antolatzen hasi zirenetik, igo eta aldatu egin da lasterkarien profila. Parte hartzaileen kopurua igo ahala, gainera, lasterkari gaztetxoek kopurua «sendotu» egin da. Gaztetxoek kopurua igotzea «polita» izan arren, taldean «kezka» eragiteko motibo ere izan dela dio: «13-14 urte inguruko gaztetxoak animatzen dira lasterketara, eta ez dakigu zein puntutaraino dauden prest horrelako exigentzia maila aguantatzeko».

Horren aitzinean, 16 urtetik beherako gazteak guraso edo arduradun batekin joatera behartzen dituz- →

EDARIEN eta JANARIEN SALMENTA eta BANAKETA

T./F. 948 631 557
Helbidea. Ziobi, 3 ALKAIAGA
posta: maziziorsenper@gmail.com

OROZ JANARI-DENDA

Ongi pasa bestak!

Tel. 948 630 180 - Altxate 28, BERA

Ongi pasa bestak!

matxako
KALEFAKZIOA - GASA - ITURGINTZA
Tel.: 609 808 756 | BERA

Iturgintza lanak
Berokuntza mota guztiak
Galdaren instalazioak

"Baxi" markan eskaintza berezia.
Eskatu aurrekontua

BAXI
LA NUEVA CLIMATIZACIÓN

Zurekin DISEINUA

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA, ETORRI IKUSTERA KONPROMISORIK GABE!

SUKALDEAK | LURRAK | ARMAIRUAK
ATEAK | TEILATUAK | EGURLANAK

Ongi pasa bestak!

Kanttonberri, 3 BERA • Tel: 722 52 14 71

ZAZPI

Diseinu grafikoa hemen eta zure neurrira

Logotipoak | katalogoak | eskuorriak | kartelak | menuak... eta gehiago

Tokiko negozioentzat, tokiko diseinua

Janire
Andrés Zapiain
Diseinatzaile grafikoa

zazpistudio.com
kaixo@zazpistudio.com
634 484 653
Bera, Nafarroa



ONGI PASA
BESTAK!

sasoi

www.sasoi.eus
Leku-eder, 16 · 31791 SUNBILLA
T. 948 451 596 | info@sasoi.eus

RECACOR

BERA

Ongi pasa
bestak!

Zalain industrialdea, 5
Tel. 948 48 71 91



te, eta 16 eta urte 18 urte artekoek gurasoen edo arduradunen baimena behar dute parte hartzeko. Gainera, Berako Udalaren eskutik, anbulantzia izaten da irteera puntuan.

Banakako sailkapenaz gain, kuadrillen artekoa ere egiten dute eta hor ere nabaritu dute igoera, hasieran hiruzpalau kuadrilla izatetik, gaur egun hamar bat izatera pasa baitira. «Emakumeen parte hartzea sustatzen ere saiatu gara eta kuadrilla bakoitzean guttienez emakume batek egin behar du lasterka».

Lasterketa Herrikoien Kopa bigarrenez Herritarren parte hartzea bultzatzeko, iaz Bortzirietako Lasterketa Herrikoien Kopa egin zuten lehenengo aldiz. Lau proba izan zituen lehen edizioak, eta aurren, borzgarren bat gehitu zaio kopari. Lehen aldia izateko, «nahiko arrakastatsua» izan zen eta hargatik bigarren bezalako antolatutako lehia. Lesakako Zubigaineko Krosa izan zen lehenengo proba, eta parte hartzearekin kontent dira antolatzaileak: «Jaz baino jende gehiago atera zen eta, beharbada kopak lagunduko

zuen horretan». Gainera, proiektua garatzen segitzeko gogotsu dira: «Erran digute Etxalarren animatuko direla lasterketa bat egitera, eta horrek erran nahi du zerbait ongi egiten ari garela, seinale ona da».

Gau krosa bezperan egin, eta bes-tetarako libre antzean izanen dira Manttaleko kideak, nahiz eta azken kontu bat ere izanen duten: abuztuaren 5ean egingen duten haurrentzako erronka. Eta ondotik zer? «Urri-arte edo, deskantsurako tartea izaten dugu, nahiz eta tartean Lizu-niagako Igoeran eta, laguntzen ari garen. Izan ere, gelditu gabe martxan dabilen makina da Manttalerena eta Pikabearen hitzetan, «herri guztia inplikatzeko duena». Horregatik, horrelako ekimenak «baloratzea» garrantzitsua iruditzen zaio: «Batuetan desagertu arte ez gara konturatzen zer dugun». Gehiago ere bai: «Jendea dagoen eta laguntzen duen bitartean, eta ilusioz ari garen artean, hagitz polita da. Baina hori gabe ezin dira herri mailan gauzak egin. Horregatik jendea parte hartzera animatu behar da, baina baita laguntzera ere».

GARBI

ORDUBETE BAINO GUTXIAGOAN EDOZEIN ARROPA MODU ERRAZEAN GARBITU ETA IDORTU!

AUTOZERBITZU GARBITEGIA **BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!**

MANTAK, EDREDOIAK, NORDIKOAK, EGUNEROKO ARROPA...

ARROPA GARBITU eta DESINFECTATU ERAGINKORTASUN eta KALITATE HANDIENAREKIN

XABOIA OXIGENO AKTIBOA LEUNGARRIA BARNE

633 424 263 Urteko 365 egunak 08:00-22:00 LEITZAKO BIDEA, 29 DONEZTEBE

Tolerantziatik eta errespetutik
besta zoriontsuak opa dizkizuegu.



Gora Berako bestak!



DISCOUNT!

Hurbildu zaitez
Discount
horienaren bila!
#aldapa igo!

SUPERMERKATU BERRIA IBARDINEN

-10%

x18

-20%

x24

APROBETXATU FORMATU HANDIAK
PACK MERKEENAK
GEHIAGO EROSI GUTXIAGOGATIK

GORA BERAKO BESTAK!

BIOK
MARKET

  ventabiok.com

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Txepetxa
ALBAITARITZA KONTULTA
CONSULTORIO VETERINARIO
ongi pasa bestak!
Legia, 21 - BERA 948 631 362 | 688 723 460

PAGOLA
Harategia
ONGI PASA BESTAK!
Altzate Plaza, 2 · Bera · T. 948 63 00 54 ☎ 722 84 12 85
www.carniceriapagola.es

LARRETxea EGYRRAK
Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra
ongi pasa bestak!!
Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427

ZENTRU LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA
Nekane Ordoki Gonzalez
ongi pasa bestak!
Ahozkapen zailtasuna ("erre" gaizki esana, "ceceo"-a...)
Gauzak kontatzeko zailtasuna
Irakurketa arazoak
Idazketa arazoak
Toteltasuna "tartamudeo"
Ahots arazoak
Arnasketa arazoak
Euskaraz/Erdaraz 646 894 332 BERA

«Denon esku dago giro osasuntsua eta errespetuzkoa izatea»

EIDER MOLINERO BERAKO TXOSNA BATZORDEKO KIDEA



ANDER RODRIGUEZ

Berako bestetako Txosna Batzordea ere buru-belarri ari dira bestak pres-tatzen, eta tartean da Eider Molinero, «ahal dudan denean laguntzeko prest dagoen beratar gazte mugitua». Ikasturtean saltsa aunitzetan murgilduta ibiltzen da baina, Berako bestetan, Txosna Batzordean eta Gure Txokoa Dantza Taldean laguntzaile eta antolatzaile gisa aritzen da batez ere.

Besta egiteko, aitzinetik norbait lanean aritu behar izaten da, eta horixe da Berako kasua ere. Hiru eragilek osatzen dute Txosna Batzordea: Espidobaitak, Goldatz Talde Feministak eta Barraskilo Gazte Taldeak. Molinero, Barraskiloko kidea da, eta kontatu du, duela pare bat urte sartu zirela Txosna Batzordeko talde eragilean, Barraskilo taldea sortu bezain pronto. «Eragile bakoitzeko bi ordezkari elkartzen gara, eta guti goiti-beheiti sei edo zazpi lagun

izaten gara». Ondotik, bileran solas-tatutakoa bakoitzak bere taldean aipatzen du, «denen iritzia bildu eta hurrengo bileran komentatzeko». Gainera, Besta Batzordeko bileretan ere parte hartzen dute, «gure egitas-moak partekatu eta aldi berean, herriko bertze eragileen proposamenak aditzen ditugu». Horrela, «herriko eragileen arteko elkarlanari eta kon-promisoari esker, gustu guztientzako egitaraua antolatzen saiatzen gara, herritik eta herriarentzat».

Kontzertuak lehentasun

Inauteak bukatu orduko hasten dira bestetako egitaraua antolatzen, eta lehen egin beharretako bat, txosna-gunean antolatuko dituzten ekintzak mahai ganean jartzea eta prestatzea izaten da. Hala ere, ekintza denen artean, kontzertuak antolatzeak izaten du lehentasuna batzordearentzat: «Ahal den neurrian, estilo diferente-

tako proposamenak ekartzen saiatzen gara txosnetara, ahalik eta jende gehien hurbiltzeko». Izan ere, Txosna Batzordearentzat, «musika izaten da herritarrak eta ingurukoak gerturatzen eta elkartzen dituen aitzakia, eta musika proposamen anitza eskaintzea funtsezkoa izaten da giro polita sortzeko».

Egitarauari dagokionez ohiko ekitaldiak izanen dituzte txosnetan aurtengo bestetan. «Abuztuaren 2an, gosari herrikoia egingen dugu eta, ondotik, txupinazora joanen gara; eta 19:00etan txosna irekiera egingen dugu Zker elektrotxarangarekin eta hiltzaile kluba eta selfie lehiaketa hasiko ditugu». Horrez gainera, abuztuaren 1ean, ortziralea, 21:00etan txosnaren aurreirekiera egingen dute, eta ondotik, presoen aldeko elkarretaratzea izanen da. «Ortziralea izanik eta hainbat ekitaldi egingen direnez, ideia ona iruditzen zitzaigun txosna irekitzea, nahiz eta *modu klandestinoan* izan».

Auzo jokoak lehenengoz

Ohiko egitarauaz gain, berrikuntza nagusi bat izanen dute egitarauan: auzo jokoak. Lehenengoz antolatu dituzte, eta, etorkizunean, «indarra hartuko duen ekitaldia» izatea aurreikusten dute. «Poliki-poliki hasi, eta hemendik urte batzuetara egun osoko egitaraua egitea da asmoa, bazkari eta guzti». Auzo jokoak helburu argia dute: «Adin denetako jendea elkartzea eta Berari buruz gauzak ikastea, hainbat modalitate-tako proben eta jokoen bidez». Horretarako, Herri Aitadan eta herri olinpiadetan egiten diren jostetak hartu dituzte oinarritzat.

Auzo jokoetan parte hartu nahi dutenek, aitzinetik izena eman behar-

ko dute sare sozialetan zein Berako hainbat komertziotan. Uztail erdialdean ireki zuten apuntatzeko epea, eta hilaren 30ean bukatuko da. Izena ematean, parte hartzaileek datu pertsonalak ematez gain, beraien auzoa ere zehaztu beharko dute taldeak osatzeko. Abuztuaren 4an, 16:00etan paratu dute hitzordua Frantzia Hartzuet plazan, eta bukatu ondotik, txosnagunean luntxa emanen diete parte hartzaileei. «Hala ere, eguraldia gure alde ez badago, ohikoa izaten den bezala, jokoak Toki Onako patioan izanen dira».

Txosnako jokoak

Berako bestetako txosnetan dagoen bertze bereizgarrietako bat hiltzaile kluba eta selfie lehiaketa izaten dira. Herritar denei irekitako jokoak eta lehiaketak dira biak. Selfie lehiaketan parte hartzea hagitz erraza da Molinerok esplikatu duenez: «Bestetan selfie dibertigarriak atera eta Instagramera igo, txosnaguneko kontua etiketatuz». Azken egunean, denek artean erabakitzen dute irabazlea, bozketa bidez: «Aitzineko urteetan jasotako argazkiak hagitz originalak izan dira eta jendea animatu da».

Hiltzaile klubean ere edonork parte hartzen ahal du eta urteak pasa ahala, gero eta parte hartzaile gehiago aritzen dira: «Aitzinetik izena eman behar da, eta abuztuaren 2an, txosnen irekieran, partaide bakoitzari bere biktima eta hori hiltzeko proba emanen diogu». Behin probak banatuta eta jokoak hasita, «parte hartzaile bakoitzak bere biktima hiltzean, hiltzaileak bere biktima eta proba hartuko ditu, horrela bakarra gelditu arte». Parte hartzaileek «hagitz ongi» pasatzen dute, eta beste «bertze bizitasun» bat ematen die anto- →

bai
berria
buztatu

SEXISMORIK
GABEKO
BESTAK!

Itsasoa hurbilagol!

amaleun
ARRAINDEGIA

948 630 981 • 620 828 757 • Itzea, 6 • BERA

Luahi

ileapaindegia • estetika zentroa • solarium

T. 948 625 742
Eztegara kalea, 20 - BERA

Konektoma NEUROPSICOLOGIA

- Balorazio neuropsikologikoak, Psikologikoak, Logopedikoak
- Neuroerrehabilitazioa
- Interbentzio psikologikoa
- Interbentzio logopedikoa
- Ikasketa prozesua
(Irakurketa, idazketa, ikasketa teknikak...)
- Terapia okupazionala
- Fisioterapia pediatrikoa
- Errealitate birtuala
- Erlaxazioa eta Estimulazio sensoriala
(Snoezelen metodo holandarra erabiliz)

MILA ESKER DENEI, ONGI PASA BESTAK!

Urtean zehar hainbat taller egiten ditugu haur eta helduentzat
(Parkinson, Gaitasun sozialak, Ireksketa atipikoak eta abar...)

ESKATU HITZORDUA:
747 437 826 | Bidasoa, 26 | BERA
konektoma18@gmail.com

ITZARGI

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK | INSTALAZIO TEKNIKO INDUSTRIALAK
AUTOMATISMOAK | MOTORE ELEKTRIKOAK | MANTENTZE LANAK

ONGI PASA BESTAK!

☎ **722 822 693** | 📍 BERA

✉ itzargisl@gmail.com



Carlos Pacheco

**ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK**

Legia, 19 - BERA

Tel: 637 151 170

Zure ideia "bitxi" bihurtuko dugu

ONGI PASA
BESTAKI
Kalash
Bitxi-denda | Erloju-denda

 Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
 Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

**MENDIKO
LANAK ETA
LOREZAJNTZA**

- ARBOLAK MOZKETA ETA KIMAKETA ALTUERAN
- ESKUZ ETA MAKINAZ EGINDAKO LURSAILAK GARBIKETAK
- HONDAKIN ORGANIKOEN BILKETA ETA KUDEAKETA
- ARBOLAK IPURDITIK ATERATZEA
- GUNE BERDEEN SORRERA ETA LOREZAJNTZA LANAK
- ITXITURAK PIKETEAKIN

ESKATU ZURE AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE!

603 581 326 | BERA

Ongi pasa
bestak!

juanarboricultura@gmail.com | @arboriculturajuanele



Ongi pasa bestak!

**KOADRO ELEKTRIKOAK BERRITZEA
MATXURA ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOAK
MOTOR ELEKTRIKOAK**

BERA | 722 287 269 | argitusl@gmail.com

latzaileen hitzetan. Aurtengo edizioari begira, esperantza bakarra dute: «Sariak banatzea, oraindik ez baitakigu zein ziren aitzineko edizioetako irabazleak».

Azken urteetan txosnak indarra hartuz

Azken urteetan, leku berria dute Berako txosnek: Toki Ona Institutuko patioa, eta horrek nabarmen igo du txosnen bueltan biltzen den jende kopurua: «Erdigunean kokatzeak aukera ematen digu arratseko giroa luzatzeko eta jendea bertaratzeke». Izan ere, Altxateko plazan zeudenean, hiru txosna paratzen zituzten, baina, «ez zegoen girorik bestetako egitarauak aunitz baldintzatzen zuelako».

Molinerok berak onartu du txosnak Altxaten zeudenean «guttitan» hurbiltzen zela bertara bestetan: «Txosna Batzordeko kideek beti erran izan dugu besta egiteko modua aldatu dela urtez urte, eta txosnagunea aldaketa horietara egokitu behar izan dela».

Lekua aldatuta, txosnen bueltan jende gehiago biltzeko aukera izateaz gain, txosna bakarra izateak, «jarraitkortasuna ematen dio proiektuari, eta aukera ematen digu urtez urte hiru eragileen arteko lana indartzeko eta sustatzeko». Nabaria da txosnak indarra hartzen ari direla, batzordeak eskatzen duen denetan biltzen baita jendea auzolanerako. Horixe da txosnagunetik zabaldu nahi duten mezua ere: «Herritarren arteko elkarlana, antolaketa eta konpromisoa».

Eta bestetara begira zer? «Mundu guztiari Berako ateak ireki nahi dizkiogu gurekin batera egun berezi horietaz disfrutatzeke, adin eta gustu guztientzako ekintzak antolatu ditugulako! Eta, batez ere, denen esku dagoela guztien artean besta giro osasuntsua eta errespetuzkoa izateak».

Beratarren artean ohiko broma izaten da Berako bestetan egunen batean euria egitearena. Esperantza bakarra du Molinerok: «eguraldia gure alde egotea».



UTZITAKOA

BERAKO BESTETAKO MENUA 2025 Abuztuak 2 eta 3

45 €
BEZa barne

Hasteko...

 Urdaiazpiko iberikoa kristal ogiarekin
 Foie micuit bloka sagar konpotarekin
 Txangurruz betetako krepea amarikar saltsarekin

Jarraitzeko...

 Legatz solomoa saltsa berde bereziarekin eta barazkiekin
 Entrekota plantxan ondo eta patata habiarekin

Eta etxeko postrea...

 Churrut torrada karamelizatua mandarina izozkiarekin
Bukatzeke, Lenkonea konbinatuak dasta ditzakezue.

 Nafarroako jatorri-izendapeneko ardoak
 (Navascal ardo beltz andua, Irati zuria eta gorria)

Ura eta kafea.

 *Abuztuaren 4, 5 eta 6rako,
 37 €-ko menua dugu, BEZa barne.
ONGI PASA
BESTAKI
Churrut hoteleko
jatetxea (LENKONEA)

 Foruen plaza | BERA (erdian)
 T. 948 625 540 · T. 948 625 542
 www.hotelchurrut.com

SUNBILLAKO BESTAK 2025



MAIDER PETRIRENA

Abuztuak 9, larunbata

11:00etan XII. Goitibehera jaitsiera.
18:30ean XXII. Ramon Latasa Saria.
20:30etik 22:30era Matraka elektro txaranga. **23:00etatik 05:00etara** AntroRock jaialdia: Akabo, Bad Sound System eta Gabezin taldeekin.

Abuztuak 10, igandea

12:00etan suziria Herriko Etxetik, erraldoiek, buruhandiek, Elizondoko gaiteroek eta Elutxa Txarangak alaiturik. **17:30ean** pilotari profesionalen arteko partidak. **19:30ean** trikitilarien kalejira Irulegi trikitixa eta pandero eskolaren eskutik. **21:30ean** zopak Ulibeltzak elkartearen Elutxa Txarangak alaiturik. **Gauean** dantzaldia Bizphiru Pelau taldearekin.

Abuztuak 11, astelehena

09:30ean diana Elizondoko gaiteroekin. **11:00etan** meza. **12:15ean** Sunbillako dantzarien emanaldia eta ondoren luntxa plazan. **18:00etan** muxikoak plazan. **18:30ean** emakumezko gazteen pilota partidak eta frontenis txapelketako finalak. **21:00etan** zezensuzkoa. **20:00etatik 22:00etara** Chuchin Ibáñez.

Abuztuak 12, asteartea

10:00etan diana Elizondoko gaiteroekin. **11:00etan** plater tiraketa Olegin. **11:30etik 13:00etara** erral-

doien eta buruhandien kalejira Elizondoko gaiteroekin. **13:30ean** bazkaria guraso elkarteak antolatuta. **18:00etatik 19:00etara** poniak Ulibeltzak Elkarte pareko belagian. **19:30ean** Arno ganadutegiko betizuek Ulibeltzak Elkarte pareko belagian. **21:00etan** zezensuzkoa Harbiztin. **20:00etatik 22:00etara** eta **00:00etatik 02:30era** dantzaldia Beñatekin.

Abuztuak 13, asteazkena

10:00etan diana. Goiz eta arratsalde, txutxu trena herrian barna. **11:00etan** boneta eta zapatila tiraketa plazan. **14:00etan** kuadrillen bazkaria Ulibeltzak Elkartearen. Bazkalondoa ura-ura Elutxa Txarangak alaiturik. **19:30ean** tortilla eta postre lehiaketa. **Segidan**, pintxo dastaketa eta sagardoa plazan. **20:30etik 02:00etara** dantzaldia Dj J&Jrekin. **21:00etan** zezensuzkoa plaza inguruan.

ABUZTUAK 14, ortzeguna

10:00etan diana eta mus txapelketa. **11:00etatik 13:00etara** eta **16:00etatik 18:00etara** haurrendako jokoak Colorin Espectaculorekin. **17:00etan** apar besta Harbiztin eta toka, aitzur eta zartagin jaurtiketa igerileku ondoko belagian. **20:30ean** zezensuzkoa Harbiztin. **21:30ean** herri afaria Ulibeltzak Elkarteak antolatuta. **Afaldondoa** musika Luzianorekin.

ONGI PASA
BESTAK!

sasoi

www.sasoi.eus

Leku-eder, 16 · 31791 SUNBILLA
T.948 451 596 | info@sasoi.eus

larreta

Ongi pasa
bestak!

lanak sl

ISOLAMENDU AKUSTIKOA

PLADURRA

IGELTSU PROIEKTATUA

ISOLAMENDU TERMIKOA

Bera - Nafarroa

www.larretalanak.com - larretaigeltsua@gmail.com

Gorka Arretxea 627 225 514 • Juanen Saralegi 637 921 299



SUNBILLAKO UDALAK

Besta zoriontsuak opa dizkizue
sunbildar eta bisitari guztioi

GORA SAN TIBURTZIO !



IRURI MOTOR

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 450 399 · 620 950 687
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA

ONGI PASA BESTAK!

ALTZURI
MENDI LANAK - GARRAIOA
31791 SUNBILLA
altzuri@gmail.com
www.altzuri.com
M. 699 461 394 - 646 298 568

SU EGURRA • PIKETEAK
GARRAIOAK • ITXITURAK
GARBITZE MEKANIKOAK
EGUR ATERATZEAK • ESKABAZIOAK

BIDASOA
GURPILAK • GAKOLINDEGIAK
1999. URTEA

609 446 693
948 625 663
bidasoa@neumaticosbidasoa.es

Alkaiaga Industrialdea
Ziobi kalea 6 - LESAKA

Ongi pasa bestak!

ukulu
inmobiliaria

Lekueder karrika 16, Sunbilla
667 547 445 | xuban@ukulu.es

MARISOL
ONGI PASA BESTAK

JANARIAK | TABAKOA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608

Bustitz
ostatua

PINTXOAK • RAZIOAK • BOKATAK
HAMAIKETAKOAK • KAXULAK
T. 948 627 919 - Leku Eder - SUNBILLA

Ongi pasa bestak!

Ongi pasa bestak!

FONDAOSTATUA

DONIBANE, 7 SUNBILLA

GREMIOEN KOORDINAZIOA
Sunbilla (Nafarroa)

Etxebizitza berriak • Zaharberritzeak • Erreformak • Konponketak • Teilatuak
Harri eta hormigoi lanak • Mota guztietako igeltseritza lanak

JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK

669 122 815
javieribarra@ibarraeraikuntzak.eus

«Herritik sortzen diren ekitaldiek xarma ematen diete beste»

ARKAITZ VICENTE URKIJIO SUNBILLAKO KONPARTSAKO KIDEA



MAIDER PETRIRENA

Artzaintzari lotuta egiten duen lanagatik da ezaguna Arkaitz Vicente Urkijo sunbildarra. Gutxik jakinen dute, ordea, ardiak gobernatzen bezain trebea dela erraldoiak dantzazten. Sunbillako erraldoien konpartsa kidea da eta besten bezperatik hasita, erraldoia bizkar gainera igo eta jira eta buelta ibiliko da karrikak alaitzen.

Lauzpabortz lagunak osatzen dute Sunbillako erraldoien konpartsa, «bi erraldoi ditugu eta azken urteetan lau lagun ibiltzen gara dantzan». Horiei, herriko gaztetxoek ibiltzen dituzten zazpi buruhandiak gehitzen zaizkie. Izan dituzte urte oparagoak

ere, «jende gehiago izan garelarik ekarri izan ditugu erraldoiak bertze herrietatik eta egia da erraldoi gehiagorekin beti ikusgarriagoa dela». Dena den, dagoenera moldatu behar izaten dute: «iaz jende aldetik juxtu ibili ginen eta nahikoa lan izan genuen taldea osatzeko».

Elkarlana beharrezkoa

Kontuan izan behar da erraldoi bat dantzarazteko pertsona bat baino gehiago behar direla: «erraldoi batendako hiru lagun behar direla erraten da. Txanda emateko, kalejira antolatzeke, bidea irekitzeko... gauza aunitz hartu behar dira kontuan

eta pertsona bakarrak egitea ezinezkoa da». Batzuetan kontuak ateratzen ez bazaizkie ere, ilusioa eta gogoa nagusitu eta lortzen dute konpartsa-ri eustea: «normalean bi ateratzen gara eta horiek lortzeko ere larri ibiltzen gara. Ea jendea animatzea lortzen dugun, denak ongietorriak izanen dira».

Konpartsarekin atera ahal izateko, erraldioak dantzatzen ikasi behar da eta horretarako entsegu batzuk egiten dituzte besten aitzinetik, «dantza berriak ikasi eta pixka bat trebatzeko». Irriz dio, «beti behar baino beranduago» hasten direla entseatzen. Ongi ikasitakoa ez omen da ahazten eta orekarekin dantzan gozatu egiten du: «momentu berezia izaten da musika jotzen hasi eta dantzan hasten garenekoa. Erraldioaren pisuarekin baino lan gehiago izaten dugu erraldioaren jantziak hartzen duen zabalarekin».

Erraldioen gonapean bada ere, hasieratik bestaren parte izan eta saltsan ibiltzeko aukera izanen du. Ardieta bueltaren bat egin beharra izanen duen arren, «bestarako tartea hartuko dut, hori seguru». Bere ustez, abuztuaren 10a da besteako egunik politena: «herriko jendea animatua eta fresko egoten da eta parrandarako ere egunik hoberenetakoa izaten da». Horretaz gain, aizkora eta pilotaz gozatzeko tartea ere hartzen du: «Latasa saria ikustera joaten naiz urtero, baita pilota partiduak ikustera ere».

Herriarrak protagonista

Argi du herriarrak direla besten oinarria eta bere ustez, «herritik sortzen diren ekitaldiek xarma ematen diete». Ez da gibelera geldituko bera ere: «zerbait antolatzen bada parte



MAIDER PETRIRENA

hartu edo esku bat botatzeko prest izaten naiz. Iaz, erraterako, herri kirolak antolatu zituzten eta harri tiran ibili ginen». Gisa horretako ekitaldiak nabarmendu ditu: «saltsa eta giro berezia sortzen da herriarrak protagonista bihurtzen direnean».

Horri lotuta, gazteek egiten duten lana azpimarratu nahi izan du: «herrian bada gazte aunitz eta poza ematen du antolakuntza lanetan burubelarri nola dabilzan ikusteak». Gauza politak eta berriak prestatzen ari direla aipatu du: «goitibehera, betizuak... kristoren lana ari dira egiten. Badago bizia eta hori ikustea polita da horrelako herri txiki batean».

Ardi galduta itzultzen da, baina aldi galduta ez. Horregatik, ardiei bisitaren bat egin beharko badie ere saiaturiko da Arkaitz bertze urte batez besta eta lana uztartzen: «herriarrekin elkartzeko eta giro ederrean egoteko egunak dira eta nahi duen oro etor dadila, ongietorria izanen da!».

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ENERGIARI ELEKTRIKOAK
KARABATZEKO OINARRIA
DOMOTIKA
EGUZKI PANELAK

Ongi pasa bestak! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera.

Lizun
GAZTANDEGIA
ONGI PASA BESTAK!

Sunbilla · Tel: 948 450 862

Espelosin
Construcciones · eraikuntzak

- Eraikuntza berriak
- Zaharberritzeak
- Teilatuak

Eta gehiago ...

ONGI PASA BESTAK!

SUNBILLA · 619 416 959
www.espelosin.com

f t

ONGI PASA BESTAK!

CAMPING · KANPINA
ARIZTIGAIN
RESTAURANTE · JATETXEA

BOKATAK
AUKERA ZABALA
Eskatu eramateko!!

PINTXOAK | RAZIOAK
· HANBURGESAK
· SANDWICH-AK
· PLATER KONBINATUAK
· MENUAK
· ASTEAN ZEHAIR

31791 SUNBILLA
948 450 540 | 660 798 249 · 636 488 300
info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com

erran.

JAVI PETRIRENA

ITURGINTZA ETA ELEKTRIZITATEA

ITURGINTZA · BEROKUNTZA
EGUR ETA PELLETEZKO GALDARAK
GASA | AEROTERMIA
EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK
INSTALAZIOEN FINANTZAKETA %0
INSTALATZAILE BAIMENDUA

Ongi pasa bestak!

T: 679 35 49 47- jpinstalazioak@gmail.com



ZORTZIKO
LEITZA - 948 510 720
ONGI PASA PESTAK!



Arzallus
HARATEGIA
Txistorra eta artisau produktuak, etxean eginak
Elbarren, 37 • LEITZA • Tel. 948 510 377



BEATRIZENEA
TABERNA-JATETXEA
Ongi pasa pestak!
menua • otartekoak • kaxuelitak • pintxoak
Mikel Deuna, 2 • Tel: 948 510 991 • LEITZA



Maimur
ONGI PASA PESTAK!
• Prentsa • Opariak • Testu liburuak
• Plastifikatzeak • Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak • Fotokopiak
Elbarren, 15 - Herriko Plaza • LEITZA
maimurleitza@gmail.com • T/F: 948 510 146



Bi Lagun
Inbentario ind.P-2
31880 LEITZA
T. 948 610 985



MAXI VICENTE
ERAIKUNTZAK
ongi pasa pestak!
Amazabal, 17 • LEITZA • 606 307 810

ARIZTIMUÑO ANAIK
ERAIKUNTZAK
ONGI PASA BESTAK!



Landa Ind. 19 • 31880 LEITZA
M. 648 610 648 • 618 709 668 F. 948 510 693
construccionesariztimuno@gmail.com

LEITZAKO PESTAK 2025



LEITZAKO UDALA

Abuztuak 2, ostirala

14:00etan Eskelarien bazkaria, Aurrrera elkartearen. **16:00etan** auzoz auzo, programa banaketa: trikitilarien, txistularien, akordeoilarien eta dultzaineroen laguntzaz. **17:00etan** plazako pilota txapelketako hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidak eta finala.

Abuztuak 3, larunbata

09:00etan diana txistulariekin. **10:00etan** korporazio txikiaren gosaria, udal ordezkariarekin. **10:30etan** txupinazoa. **Ondoren**, gurgildun zezenen entzierroa. **11:00etan** Aurrrera pilota eskolako txikien partidak plazan. **11:30etan** Denok Bat guraso elkarteak antolatutako herri kirol jolasak plazan. **17:00etan** Leitzako Konpartsa plazatik abiatuko da. **18:30etan** Aurrerako dantzari txikien emanaldia eta ondoren umeen ingurutxo irekia plazan. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte. **20:30etan** DJ Xaibor. **23:00 aldera** zezensuzkoa.

Abuztuak 9, larunbata

17:30etan Gazteen joko-erronkak. **21:00etan** DJ gaua beheko txosnan: Adrian Perez, Aimar Oskariz eta Zaze. Burutik taldearen kontzertua plazan, **23:00etan**. **Ondoren**, Trio de Janeiro Dj plazako txosnan eta tekno gaua Atekabeltzen.

Abuztuak 10, igandea

13:00etan Etxera kalejira musikatua. **14:30etan** Sarek antolatuta, kantu bazkari herrikoia karrapean Kuxkuxutu txarangarekin. **18:00etan** txupinazoa. **Segidan**, Plazaola aldirikako programa eta azalen irabazleei sari banaketa Kaxkabeltza Elkartearen eta Leitzako Udalaren eskutik. **18:30etan** La Jodedera, Labetzeko atarian. **19:00etan** Mejikortxo, beheko txosnan. **22:00etan** zezensuzkoa. **23:00etan** Itzal erromeria taldea. **Ondoren**, Incansables txarangaren gaueko erronda eta plazako txosnan DJa. **00:00etan** DJ JO TATXO beheko txosnan.



PABLO FEO



PABLO FEO



PABLO FEO

Abuztuak 11, astelehena

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **10:30ean** meza. **11:00etan** haiaiketako irekia, Karrapean. **12:00etan** Aurrera dantza taldearen ezpata dantza, plazan. **13:00etan** Incansables txarangaren erronda. **17:00etan** zezenak, plazan. **19:00etan** herri kirolak plazan. Aizkoran: Vicente, Ezpeleta, Larrañaga, Txikia eta Malen Barrenetxea. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte. **19:30ean** Incansables txaranga eta buruhandiak

aterako dira. **22:00etan** zezensuzkoa. **23:00etan** Puro Relajo. **Ondoren**, Incansables txarangaren gaueko erronda.

Abuztuak 12, asteartea

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **10:30ean** aparra plazan. **11:30ean** Aurrerako pilota festa Amazabal pilotalekuan: M. Martinez eta A. Zubillaga, J. Baleztena eta O. Alkortaren kontra. G. Zabaleta, M. Arrillagaren kontra. J. Sagastibeltza eta B. Santamaria, H. Txoperena eta E. Goikoe-txearen kontra. **13:00etan** paella jana karrapean eta Incansables txarangaren erronda. **17:00etan** zezenak plazan. **19:00etan** Aurrera dantza taldearen emanaldia plazan. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte. Bertso potea Aurreratik abiatuta eta Incansables txaranga eta buruhandiak aterako dira. **22:00etan** zezensuzkoa. **23:00etan** Janus Lester. **Ondoren**, Dja plazako txosnan. **00:00etan** DJ Zaze eta DJ Zigix beheko txosnan. **Ondoren**, Incansables txarangaren gaueko erronda. **03:00etan** gaueko ingurutxo irekia plazan.

Abuztuak 13, asteazkena

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **11:00etan** Leitzako Konpartsa plazatik abiatuko da. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte. **13:00etan** txakolin dastaketa eta Incansables txarangaren emanaldia udaletxeko karrapean. **16:00etan** zezenak plazan. **17:00etan** bertsolariak plazan. Maialen Lujabio, Jon Maia, Eki Mateorena, Maddi Ane Txoperena eta Unai →



PABLO FEO

Melo Pinturak ONGI PASA PESTAK!!!
koop.
T. 609 873 178
LEITZA
www.pinturasmelo.com
melopinturas@hotmail.com

VICUÑA
LOGISTICS+
Ongi pasa pestak!

Garbi ongi pasa pestak!
drogeria - lurrindegia

Huarte Gotzaia 19, LEITZA 948 51 01 73

Leitzarra ongi pasa pestak!
Pintxo eta ogitarteko aukera zabala
taberna
677 721 688
Uhartetza 2 LEITZA



ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA | MOBLEAK
MANPARAK | KOMUNERAKO OSAGARRIAK
pesta zoriontsuak igaro!

Tel. 647 525 516 • ARESO | LEITZA
arkaitzareso@gmail.com



ONGI PASA PESTAK!

LEIMEN SL

Era guztietako elektrizitate lanak



LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 David

Aroztegi eta Galdereria
LEITZELARREA, S.L.
 Landa Beikoa industrialdea, 20 | LEITZA
 T. 948 510 598 - 699 824 365 | info@leitzelarrea.es

Ongi pasa pestak!

EZKAIN eraikuntzak S.L.

ongi pasa pestak!!

Lizarraga, 3 • LEITZA
 M. 650 910 868 • 650 910 867
 T/F. 948 610 956 • 948 610 956
 ezkain1@gmail.com

EXPLOTACIONES FORESTALES
ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.

zls

Oihan aprobetxamenduak
 Bertako eta kanpoko zur-biltegia
 Egurra aireko kable bidez ateratzen dugu
 Oihanberritze lanak
 Zur-salmenta, eskabazioak, garraioa

Landa Ind. I eta II • LEITZA
 Tfnoa: 948 510 214 • Faxa: 948 510 841
 M: 606 949 130 - 606 949 131
 info@zubillagasaralegui.es

Saralegi
Taloak

Bertakoa, naturala, goxoa!

ONGI PASA PESTAK!

Saralegi Taloak
 ARRO BASERRIA | LEITZA
610 378 543



GEREÑO

Agirre ariko dira kantuan. **18:30ean** pilota jaialdi profesionala Amazabal pilotalekuan: Artola eta Imaz, Agirre eta Mariezkurrenaren aurka ariko dira. **21:30ean** zezensuzkoa. **22:00etan** herri afaria. **00:00etan** Euskal Rock Erradikalaren gaua, beheko txosnan. **Ondoren**, Incansables txarangaren gaueko erronda.

Abuztuak 14, osteguna

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **11:00etan** ur txirrista Errekaldeneko atarian. **13:00etan** Incansables txarangaren erronda. **14:00etan** gazte bazkaria udaletxeko karrapean. **16:00etan** ur txirrista Errekaldeneko atarian. **17:00etan** zezenak plazan, gazteen jolasekin. **18:30ean** Elektrotxorongo taldea plazatik abiatuko da. **Ondoren**, DJ Zaze herrian zehar. **20:00etan** goxokiak banatuko dituzte. **Ondoren**, Incansables txaranga eta buruhandiak aterako dira. **22:00etan** zezensuzkoa. **23:30ean** Los Zopilotes Txirriaos. **Ondoren**, DJ

Siwanaba plazako txosnan, DJ Reimy Atekabeltzen eta Danbol eta Obrium beheko txosnan. **01:30 aldera** Incansables txarangarekin erronda.

Abuztuak 15, ostirala

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **10:30ean** Leitzako Konpartsak Markina Xemeingo Konpartsaren bisita jasoko du plazan. **12:00etan** herri kirol saioa plazana. Harria jasotzen Maddi Gesalaga eta Goizeder Abendibar ariko dira eta lastoa altxatzen eta botatzen Jon Lapazara. **14:00etan** jubilatuen bazkaria egingen dute eta **14:30ean** Aurrerako bazkideen bazkaria. **17:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **19:00etan** helduen Ingurutxoa dantzatuko dute plazan. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte eta Incansables txaranga eta buruhandiak aterako dira Aurrera. **20:00etan** erromeria Gabezin taldearekin. **22:00etan** zezensuzkoa. **23:00etan** Gabezin. **00:30ean** Gaixoa ni Incansables txarangarekin.

Ongi pasa pestak!

GAZTAÑAGA
 TABERNA

OTARTEKOAK

PINTXO BEROAK

KAXUELAK

948 610 708 - LEITZA

ONGI PASA PESTAK!

OGI BERRI
 ARTESANOS PANADEROS

KAFETEGI OKINDEGIA

Egunero egiten ditugu
PIZZAK

948 610 974 | LEITZA

Pesta onak pasa!

Lopenea

Elbarren, 47 - LEITZA
 606 27 35 34 - 688 64 08 34
 www.lopenea.com

BOKATAK · KAXULAK
MENUA · PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK

«Txupinazoa botatzeko aukera izatea ohore bat da niretzat»

JOXERRA INTXAUSTI BERISTAIN MAIMUR LIBURU DENDAKO JABEA



ENERITZ IRAOLA

Ezti gozotan dago Joxerra Intxausti Beristain, «oso pozik eta hunkituta» Leitzako txupinazoa botatzeko aukera eman diotelako. Leitzarrek proposatutako hiru hautagaietako bat zela jakitea beretzat «ikaragarria» izan zela dio eta herri bozketan boto gehienak bere aldekoak izatea, espero ez zuen «oparia» izan da. Bada, ki herri oso batek egindako aitortza dela eta hala bizi du: «jende asko etorri zait zorionak ematera eta asko hunkitzen nau horrek».

Tolosako Amarotz auzoan jaio baren ere, Leitzan tokia aspalditik irabazia du Intxaustik: «hogeita hamar urte baino gehiago daramatzat Maimur liburu dendan». Urteko 362 egunetan izaten du irekia denda: «urtarrilaren leian, abenduaren 25ean eta Aste Santuetako larunbatean ixten dut, orduan ez delako prentsarik izaten». Gainerakoan, eskolako egutegia kontuan izaten du eta horren arabera egokitzen du ordutegia: «eskolako opor egunak dituztenean, arratsaldetan itxi egiten dut normalean». Gaineratu du: «lan lotua da, baina gustura aritzen naiz. Badakit non ari naizen eta ezin naiz kexatu».

Hunkituta dio lanean segitzeko indarra eta gogoia eman diola herri-tarrek erakutsi dioten maitasunak: «65 urte ditut eta askok esaten dida-

te erretiroa ez hartzeko. Ez daukat horretarako asmorik. Urte batzuetan, oraindik, lanean segi behar dut. Hemen nago, lanean ongi nago eta ez da seinale txarra».

Egunkarien banaketa

Goizean goiz hasten da lanean, «05:30erako izaten naiz hemen eta lehenbiziko erronda egiten dut egunkariak banatuz». Duela gutxira arte, oinez egiten zuen banaketa, baina garai berrietara egokitu da: «seme-alabek oparitu zidaten patinete elektrikoarekin ibiltzen naiz orain». Goizeko ordu txikietan tabernetan egiten du banaketa, baina baditu bezeroek estimatzen dituzten detailak ere: «tabernari bati egunkaria ematen badiot eta baldin badakit ondoan badela adineko bat, ez zait deus kostatzen berari ere eramatea». Naturaltasun osoz eta egiten duenari garrantzia kenduz, gaineratu du pozik egiten dituela horrelakoak: «ahal dugunean laguntzeko gaudela uste dut».

Informazio taula

Ez da herrian eskaintzen duen zerbitzu gehigarri bakarra. Informazio taula baten funtzioa betetzen baitu Maimur liburu dendako sarrerako atearen eta leihoaren inguruak. —>

MASAJISTA *Pestak gozatu!*
ZEURE BURUARI
DENBORA ESKAINIZ ZAINDU
Zatoz masajea hartzera!
Egunerokoak eragindako minak eta
gainkargak artatu eta karga lasatzera
Elbarren kalea, 43, 2. Alifnea Tel. 646 568 753

izaskun
estetika zentroa
edertasun
tratamendu
eta aholkuak
Uharte Gotzaina 4 behea
LEITZA - T. 638 306 110

KAMPERBIDE
ONGI PASA PESTAK!
Landa Poligonoa 8b · LEITZA · 669 707 916
info@kamperbide.com · www.kamperbide.com

Sagasti
ONGI PASA PESTAK!
PESTETAKO MENUA
ELKARBANATZEKO
Txorizo egosia
Etxeko frijituak
Kukuluak pikillo saltsarekin
AUKERATZEKO
Entrekota parrillan
Txerri masailak saltsan
Lupia
Sepia
Zapo isatsak saltsan
POSTREA
Mamia
Arroz esnea
Natilla
Flana
Gazta tarta
Limoizko sorbetea
35€
edaria eta
katea barne
Elbarren 98, LEITZA
602 078 912

kide Aholkularitza *Ongi pasa pestak!*

Kontabilitate kudeaketa eta aholkularitza	Zerga aholkularitza	Lan aholkularitza
Enpresen sorrera eta jarraipena	Zuzenbide aholkularitza	Beste izapide batzuk

izaskun@kide.eus · www.kide.eus
LEITZA: Landa Ind. 18 - 1 · T. 948 510 990
DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5 - 2 · T. 943 420 348

bai euskaraz Zerbizua euskaraz

Leitza Garajea Multimarka

LEITZA GARAJEA
 MULTIMARKA TAILERRA
 STILH AGENTZIA
 NEKAZARI TAILERRA
 SALEROSKETA

ONGI PASA PESTAK!

Landa Industrialdea · LEITZA
 948 510 466

bai euskaraz Zerbizua euskaraz

GAZTANAGA
 SAGARDOTEGIA

URTE OSOAN IREKITA

Ongi pasa pestak!

Buruntza auzoa | ANDOAIN
 ☎ 943 591 968 f

Bertan zintzilikatzen ditu egunero Intxaustik Leitzari buruzko berriak: «errepaso bat ematen diet goizean goiz egunkariei eta Leitzari buruzko zerbait ateratzen bada, moztu eta sarrerako atearen ondoan edo leihoan jartzen dut ikusgai, baita eskelak ere». Aitortu du arrakasta duen zerbitzua dela: «jende asko ikustera etortzen da eta pila bat eskertzen dute».

Jendaurrean gustura

Intxausti gustura aritzen da jendaurreko lanean: «dena ez da arrosa kolorekoa, baina gauzen alde ona ikusten saiatzen naiz beti. Gauzen alde txarrarekin gelditzen bazara, ezer onik ez dago». Bezeroarekin duen gertuko harremana nabarmendu du: «asko dira egunkariaren eske etorri eta goiz erdia nirekin berriktan ematen dutenak».

Horretarako txoko aproposa ere badu: «bi erakusleho nituen lehen, baina Covid garaian jendea ez pila-tzeko bietako batean leihoa ireki eta salmentarako puntua sortu nuen. Geroztik, halaxe gelditu da eta bezeroekin egoteko txoko berezia da orain».

Komertzioaren egoera

Komertzioaren egoeraz galdetutakoan, gauzak asko aldatu direla aipatu du eta garai bateko eta oraingo egoera alderatu ditu: «prentsa eta aldizkariak saltzen jarraitzen dut, ezin dut kexatu, baina ezin da kon-

paratu garai bateko eta gaur egungo salmenta». Hala, prentsaren urrezko garaiak izan ditu gogoan: «akordatzen naiz igandetan jendea mezetatik bueltan etortzen zela egunkariaren eske. 11:30-12:00 aldera ateratzen ziren mezetatik eta hemen bilagunek egon beharra izaten genuen denei erantzun ahal izateko. Zoramen hutsa izaten zen». Datua ere eman du: «egunkariak faszikuluak ekartzen zituzten eta erraz salduko genituen igandetan 150 bat». Moda-modan egon omen ziren: «atera kontuak, jendeak faszikuluak enkoadernatzeko ekartzen zizkidan. Hasieran, Tolosako gizon bati ematen nizkion egiteko, baina eskaria handia zela ikusita, neronek ikasi nuen azkenean enkoadernazio lanak egiten».

Egunkariekin batera, hamaika koa-derno, boligrafo eta material saltzen ditu. Abuztu bukaera eta irail hasiera, beti bezala, lan askoko garaiak izaten dira: «eskolako materialak eta liburuak beti bezala saltzen dira eta, badirudi, papera berriz ere pixkanaka tokia berreskuratzen ari dela». Dena ordenagailuan egiten zengaraiak alde batera utzi eta geroz eta gehiago omen dira pantailetatik alden du nahi dutenak: «eskaera asko izaten ditut dokumentuak inprimatzeko eskatuz. Badirudi jendeak irakurtzeko eta ikasteko papera nahi duela eta hori guretzat berri ona da».

Ikasturte berriari begira jarri aurretik, pesta giroan murgilduko dira



ENERITZ IRAOLA



ENERITZ IRAOLA

Leitzan. Orduan ere, atsedenerako tarterik ez eta lanean ariko da Intxausti: «beti bezala 06:00etarako irekiko dut denda eta, seguru, urtero bezala konpainiarik ez dudala faltako ordu horretan. Goizeko ordu txikietan, ezagun guztiak hemen izaten ditut bisitan». Denda ireki aurretik egunkariaren ohiko banaketa eginen du, baina egun horietan denbora gehixeago beharko du zeregin hori betetzeko: «patinetea etxean uzten dut halako egunetan, taberna ingurura patinetean agertzea ez baita oso segurua».

Eguerdiko ordu batean denda itxi eta orduan hartuko du berak ere pestarako tarte: «lagunekin tragoxkaren bat hartu, arratsaldeko ekitaldiak ikusi eta asko berandutu gabe joan beharko dut etxera, hurrengo goizean iratzargailuak ez didalako tregoarik ematen».

Gauetz oso gutxi ibili izan da pestan eta ibili denetan, batzuetan lanean aritu da: «duela urte asko zerbitzari lanetan ibili nintzen. Gauean ordu-batak aldera ingurutxo egiten zen plazan eta diskoteka bat irekitzen zuten. Ni hor egon nintzen lanean zerbitzari eta Txoko taberna zaharrean ere bai».

Orduko bitxikeria ere ekarri du gogora: «Leitzako pestek beti izan dute fama, baina garai batekoa berezia zen. Pentsa, Txoko zaharra 24 orduz egoten zen irekita. Loentxok, tabernako jabeak, abuztuaren 10ean tabernako atea kentzen zuen eta abuztuaren 16ra arte ez zuen jaritzen. Pestak ez zuen etenik».

Orain ere jende asko etortzen da eta liburu dendako leihotik plaza betea ikusten du goizean goizetik: «zezenek jende asko mugitzen dute».

Plazan, ordea, ez dira zezenak bakarrik izaten, «kolore berezia hartzen du plazak, batzuk esnatu berriak, besteak erretiratu gabe... eta asko ikusmiran. Egia da, zezenen aitzakian gautxoriak ikustera arrimatzen direnak ere badirela».

Duela urte batzuk, entzierroaren aurretik gaupasero askoren bisita izaten zuen berak eta ezin kontatu ordu txikietako aitorzak: «egunkaria erosteko moda egon zen, dendara etorri, tarte batez nirekin kontutan aritu eta egunkaria bilduta jarrita, ateratzen ziren korrika zezenaren aurretik».

Herri giroa

Abuztuko lehenbiziko asteburutik hasita, hamaika ekitaldi izanen dira Leitzan, baina antolatutako kontzertu, emanaldi eta ekitaldiek baino garrantzia gehiago dute Intxaustiren ustez herritarrek duten pestarako gogoak: «abuztuko lehenbiziko egunetatik nabari zaie herritarrei txispa, ilusio, gogo... berezi bat».

Leitzako pestetako herri giroa nabarmendu du: «plaza betea egoten da ekitaldi guztietan eta herri giro sanoa izaten da». Horren adibide da, bere ustez, «beti jendetza bildu eta inoiz deus larririk ez pasa izana. Giro ona izaten da beti pestetan». Komeriarik handienak ekitaldietan tokia hartzeko izaten omen dira: «badirudi batzuetan Leitzako plaza txiki gelditzen dela. Ekitaldia bostetan bada, lauatarako joan behar duzu tokia hartzera». Eta badira, lehenago mugitu behar izaten den egunak ere: «abuztuaren 11ko ezpata dantza ikusteko, badira pare bat ordu lehenago plazara gerturatzen direnak».

Berak arratsaldeko egitaraua ongi ikasia du: «zezenak, bertsolariak, pilota partidak, dantzariak... ekitaldi asko eta askotarikoak izaten dira». Gainera, nabari du azken urteetan geroz eta gehiago direla eguneko pesta nahiago dutenak: «gaueko giroak oraindik badu indarra, baina nik uste azken urteetan geroz eta indar gehiago hartu duela egunekoak».

Abuztuaren 10ean udaletxeko bal-koira igo eta mikrofonoa hartzen duen, ez daki azken aldian bezeroak agurtzeko darabilen *Epa txus!* esaldiarekin hasiko ote duen pregoia: «ez naiz oraindik pentsatzen hasi horretan». Esaldi bat edo bestea aukeratu, ziur ez dela txalorik faltako plazan. Batzuetan, ereindakotik jasotzen delako bizitzan.

ONGI PASA PESTAK!

DANI
ITURGINTZA

ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

672 18 31 99

iturgintzadani@gmail.com

LEITZA

ONGI PASA PESTAK!

Lirain
Arropa-denda

Elbarren 34, LEITZA

676737856

ONGI PASA PESTAK!

LEITZAKIROLAK

Elbarren, 36 · LEITZA · Tel. 948 610 976

info@leitzakirolak.com · www.leitzakirolak.com

ONGI PASA PESTAK!

AINART
ileapaindegia

Elbarren, 67 behea LEITZA · 948 510 197

ONGI PASA PESTAK!

euskron

Etorri gurekin lanera!

+34 948 510 807
www.euskron.com

Elusteder 4
31876 Areso

PERITZA
TABERNA

Pesta onak pasa eta txintxo ibili!

AISLAN, s.l.
ONGI PASA PESTAKI
AISLAN-LEITZA, s.l.
618 915 943
Santa Luzia pasealekua, 4 B Behea · Butintxuri · IRUÑA
aislanleitza@yahoo.es

POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA

DENAUTO SAGASPER
Tailerra
ONGI PASA PESTAKI
AUTO KONPONKETA
Eluseder Ind. · ARESO · T 948 510 610 · F 948 510 917

AMAIA
ARRAINDEGIA



948 510 590
Uharte Gotzaia | LEITZA

Ongi pasa pestak!

HIERROS LEITZA



Ongi pasa pestak!

Iñurrista Pol, 12 - LEITZA

948 51 08 48
www.hierrosleitza.com

FERRETERIA - PENTSUAK
ORTIZ
Ongi pasa pestak!



@ ortizpentsuak@gmail.com
Landa industrialdea 13
31880 Leitza - Nafarroa
T. 948 513 600
www.ortizferreteria-pentsuak.blogspot.com.es

Baserriko gaiak
Tresnak
Haziak
Sagardoak
Baratza
Ardoak
Kontserbak
Pentsuak
Eraikuntzarako gaiak

«Abuztuaren hamarretik aurrera dena izaten da pesta herrian»

NEREA ARANBERRI ZUBIRI LEITZAKO GAZTEA


Hogeita bi urteko leitzar gaztea da Nerea Aranberri Zubiri. Oinak arin, dantzarako afizioa barrenera ongi sartua du eta aitortu du, «dantzak eragiten didan sugarrak jada neurtezina den dimentsioa» hartu duela. Haurrazela hasitzen dantzan eta 2015az geroztik, Aurrera dantza taldeko kidea da: «dozena bat urterekin, hasi nintzen Aurreran dantzan eta bi urtez dantza alde batera utzi eta gero 2022aren amaieran berriro hasi nintzen». Pestetako emanaldiek piztu zioten, berriz ere, dantzarako grina: «pesta bigarreneko emanaldiak plazako eserlekue-tatik nostalgia eta inbidiaz bizitzeaz gogaituta, taldera bueltatzea erabaki nuen».

Taldeko dantzaria, ez ezik, dantza irakaslea ere bada orain: «2024aren hasieran hasi nintzen lagun bati esker, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrei klaseak ematen. Berri xamarra naiz, beraz!».

Dantzarako afizioa bezalaxe, umetatik heldu zaio irakasle izateko bokazioa eta irakasle titulua lortu berri-tan, «txikitako ametsa egia bihurtzea» lortu du. Afizioen artean, berriz, «errepideko txirrindularitza eta argazkila-ritza» aipatu ditu eta Aranberri di-onez, «euskal dantzekin batera bizitzaz disfrutatzeak aukera» ematen diote.

Batzuetan gazi, besteetan gozo, «gazte izateak berak badu bere drama, baita bere zoriona ere». Irriz gaineratu du: «bat larritzen da klimarekin, aldamenekoa ikasketekin, bigarren solairukoa amodioarekin, eta haren lehengusua TikTokeko koreografiekin; baina, hala ere, aurrera joan ohi gara kafez eta ironiaz blaituta, pentsa».

Leitzako pestak ailegatzeko direnean ezin jakin balantza norantz eroriko den, baina bizikleta alde batera utzi eta oinak eta argazki kamera astintzeko asmoa du: «dantzarako eta argazkiak ateratzeko beti izaten da aukera pestetan». Gustuko ditu herriko pestak: «eguneroko errutina hankaz gora jarri, eta abuztuaren hamarretik aurrera dena izaten da



AMAIA IPARRAGIRRE

pesta herrian: bazkaria, txupinazoa, txaranga, afaria eta kontzertuak».

Pestan gozatzeko

Ongi ikasia du dagoeneko egitaraua eta egunez egun azaldu du zein den bakoitzerako duen plana. Azaldu du abuztuaren 10ean, pesta egunean, aldizka diana entzun ondotik, beretzat «ordezkaezina» den bederatzietako goizeroko zita izaten duela plazan, «zezenakikusteko». Ondoren, gosalduta eta ezpata dantzarako lekua hartzera joaten da, «taldekideei argazkiak ateratzeko». Familiarekin bazkaldu eta iluntzean dantza da, berriz ere, plaza ingurura gerturatzeko aitzakia: «inguruxoa ikustera joaten naiz eta txandaren batean baita dantzatzera ere».

Pesta bigarrenetan ere, ezin dantzak alde batera utzi. Aurrera dantza taldeak emanaldia eskainiko du abuztuaren 12an, 19:00etan: «aurten ere plazer duenak izanen du emanaldiaz guk bezainbeste disfrutatzeak aukera». Pestetako egunik politena izaten da beretzat eta ilusio berezia sortzen dio dantza saioak: «jendetza plazako eserleketan, animo oihuen etenik gabeko harrabotsa belarrietan eta urduritasuna eta ilusioa zainetan barna. Koktel ezin hobea osatzen da». Dantza saioa



AMAIA IPARRAGIRRE

bukatzean datorrena ere ez da txarra izaten: «dantzariok afaria izaten dugu eta goizeko hiruretan plazara joaten gara ingurutxo xeble bezain dotorea dantzatzera».

Gainerako egunetan, plana antzekoa izaten da: «zezenak ikusi, lagunekin zein familiarekin otorduak egin, txarangaren erritmoan gorputza astindu, bertsolarien saioa entzun, kontzertuetan gozatu...». Baina abuztuaren hamabostean ez da azken minutura arte pestan gelditu zalea: «azken minutuetan nahiago izaten dut etxeratu. Gai-xoa ni entzutea ez baitut inolaz ere gustuko!». Gaua eta egunaren artean, «egunekoa lehenesten» du Aranberri eta «gaua lotarako» dela dio: «hala ere, ez dut altuegi esanen, ezta apusturik eginen ere, behin kalera aterata bai baitakit zer gertatzen den».

Ekitaldirik gustukoena aipatzeko ere eskatu diogu eta lan zaila dela aipatu duen arren, nostalgia apur batekin erantzun du, «zezenak» hautatuko lituzkeela: «guraoek diotenez, haurra nintzenetik ez omen dut sanfermine-

tako entzierro bakar bat ere galdu, ez eta pestetako saiorik ere. Hortaz, nik finkaturiko usadioari jarraitzen diodanez, zezenak aipatuko ditut».

Aldatzeko deus ez

Ekitaldi dezente izaten dira, eta uste du denentzat badela zerbait eta ez luke deus aldatuko: «guztion neurrira egokitutako pestak antolatzea zaila da, batzuek bozgorailuak mututu nahiko baitituzte eta besteek bolumena igo. Hala ere, herrian saltsa ez da sekula faltako, eta nire aldetik, behinik behin, bere horretan uztea komeni!». Musika aldetik ere, gustura dago aurtengo aukeraketarekin: «pestarako erromeriak eta rantxerak dauden lekuan, asperten lanik ez da izaten eta aurtengo pestetan bietatik izanen denez, dantzarako nahikoa aukera izanen da».

Azken aldian osagarri izan dituen makuluak atzean utzi nahi dituelako izanen da, akaso, baina elkarrizketan dantza zenbatetan aipatu duen ikusita zalantzarik ez dago; plazako petrilean eserita behitzat ez da geldituko.

gaztelu scl

KALEFAKZIOA • SANEAMENDUA • GASA • ITURGINTZA • KLIMATIZAZIOA
BAITA ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK ERE

Landa Behikoa Ind, 21 • LEITZA

T. 948 510 086 • 948 510 156 • F. 948 610 856

info@fontaneriagaztelu.com • www.fontaneriagaztelu.com

ONGI PASA
PESTAK!



FISIOETXEA
Ane Egizabal Liata
Fisioterapeuta

ongi pasa
pestak!

Ariketa terapeutikoak • Osteopatia • INDIBA ACTIV zentroa
K-STRETCH METODOA • Gimnasia Abdominal Hipopresioa

Uharte Gotzaina, 8 3.C • LEITZA • T. 948 510 730



EROSKI city

Harategia, urdaitegia,
arraindegia, frutategia...

**Herritik atera gabe
erosketa guztiak**

Tel: 948 510 007 • 948 610 657
Elbarren, 20-71 LEITZA

Ongi pasa
pestak!



LEITZAKO UDALAK

pesta zoriontsuak opa dizkizue
leitzar, bisitari eta gurekin egon
ezin izan duzuen guztiei



ERRESPETUZKO
HARREMANAK
GUSTATZEN ZAIZKIGU
BERDINTASUN BATZORDEA
UTER GAZTEA BEZU ARRA

*Leitzako pestetan
herria beti garbi!*

traeco
ingurumena • medioambiental

www.traecomedioambiental.com